

# 2015eko MEMORIA

**CEA(R)** EUSKADI

Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea

## 25 urte baino gehiago errefuxiatuen alde lanean

1979an, babes bila gure mugetara heltzen ziren pertsonen egoerarekin kezkatuta, Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR) eratu zuten pertsona batzuek. Orduz geroztik, erakundea erreferente bihurtu da pertsona errefuxiatuen eskubideak babesteko eta defendatzeko lanean. Gainera, profesionalki eta egiturei dagokienez hazten joan den heinean, ideologikoki ere hazi egin da, eta, gaur egun, kolektibo gehiagori ematen die arreta.


Proiektu horren zati txiki bat **Euskal Autonomia Erkidegoan abiarazi zen 1989an**, ia bitartekorik gabe, baina ilusio handiz.

Pertsona boluntarioen energiari esker-haien denbora eta jakintza eskaintzen baitzioten erakundeari-, eta urte hauetan migrazioek izan duten bilakaeragatik eta gure herrialdeko migrazio-politikaren ondorioz, **CEAR-Euskadi izaera juridiko osoko** gobernuz kanpoko **erakunde** bihurtu zen 1996an. Erakundea CEAREN agindupean, ordezkaritza gisa, eta hainbat programa gauzatzen ditu Espainiako ipar-mendebalde osoan bizi diren pertsona errefuxiatuen eta bertan asiloa eskatu dutenen alde. CEAR eta CEAR-Euskadi **bi erakunde desberdin dira, baina helburu berak lotzen ditu: beren egitekoa.**

**“Gure egitekoa da giza eskubideak eta nazioarteko babesa behar duten eta/edo bazterkeria-egoeran dauden pertsona errefuxiatuen, lekualdatuen, herrigabeen eta migratzaileen garapen integrala defendatzea eta sustatzea.”**

# Nor gara?


Gaur egun, CEAR-Euskadi honela dago osatuta:



CEAR-Euskadiren giza taldea elkarlanean aritzen da, ikuspegi zehatzarekin:

**CEAR - Euskadi aldaketa- eta eraldaketa-eragile gisa finkatuko da, gizarte iraunkorra, bidezkoa eta diskriminaziorik gabea lortzeko, aukeretan eta identitate indibidualean eta kolektiboan oinarritzen dena, gizarteko, kulturako, laneko eta politikako prozesuen sarea kudeatuz, interes-taldeek elkarrekin parte hartuz**

[ ETA HONAKO BALIO HAUEK ERRESPETATZEN DITU ]



# Helburu estrategikoak

2015-2018 Plan Estrategikoak 6 helburu estrategiko nagusi definitzen ditu:

Etorkin, errefuxiatu eta herrigabeen garapen integrala

Etorkin, errefuxiatu eta herrigabeen giza eskubideen defentsa eta kulturen arteko bizikidetzaren sustapena

Prozesuen araberako kudeaketaren finkapena

Taldearen garapen pertsonala eta profesionala

Baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkorra eta iraunkorra

Ekitatearen sustapena erakundearen egunerokoan

## PREMIE kudeaketa-eredua

Etengabeko hobekuntzaren alde egiten du, eta 2009an hasitako PREMIE kudeaketa-ereduan oinarritzen da. 2014 ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiak eta TECNALIA enpresak CEAR-Euskadiren kalitate-sistemaren kontu-ikuskaritza egin zuten, eta emaitza aldekoa izan zen; horrela, bada, PREMIE DIPLOMA berritu zen, 2019ra arte.



## GENEROA

CEAR-Euskadin ulertzen dugu erakundeak ez direla neutroak generoari dagokionez, izan ere, gure antolamendu-kultura gizartean indarrean dauden balioen baldintzapean dago, bai eta



botere-egitura nagusien eta emakumeak menderatzen dituen desberdintasuneko sistema patriarkalaren baldintzapean ere. Hori guztia jakinik, analisi-prozesuari ekin diogu; formala dena gainditzen du eta erakundearen maila guztietan sakontzen du. Hori dela eta, “Ekitatearen aldeko Ekintza Plana” prestatu dugu, 2015-2018 Plangintza Estrategikoaren barruan dagoena, eta Emakunderen erakunde laguntzaile gisa dugun konpromisoa berretsi dugu.



## [ 2015eko jardura nagusiak ]

Gure antolamendu-estrategia ezartzeko, prozesuen araberako kudeaketa aukeratu dugu.

**p** **Prozesu estrategikoak:** Plangintzari, antolamendu-kudeaketari eta faktore funtsezko edo estrategikoei lotuta daudela ulertzen diren beste batzuk, besteak beste, plangintza eta zuzendaritza edo kalitatearen kudeaketa.

**p** **Prozesu osagarriak:** Gainerako prozesu guztietarako behar diren baliabide guztiak ematen dituztenak, besteak beste, kudeaketa ekonomikoa edo baliabide eta hornitzaileen kudeaketa.


**e** **Ekintzen prozesuak:** Erakundearen izateko arrazoi direnak: arreta juridikoa, psikologikoa, sentsibilizazioa edo eragin politikoa.

## [ Gizarte-eraldaketa ]

CEAR-Euskadiko erabiltzaile diren etorkinen, errefuxiatuen eta herrigabean garapen integrala sustatzearen alde lan egiten dugu; horretarako, eskubide osoak dituzten herritarren aitortzea ekarriko duen gizarte-eraldaketa bilatuko da, kulturarteko bizikidetzatik. Garapen hori lortzeko, pertsona bakoitza bere **prozesuaren protagonista** izatea bilatuko da, eta, horretarako, beharrezkoa izango da esku-hartzeak pertsonen **ahalduntzea** sustatzea.

## [ Esku hartzeko ildoak ]

2015ean, CEAR-Euskadik **Bilboko bulegoan 72 herrialdeetatik etorritako 1.420 pertsona artatu ditu.**



Kontuan hartuta 2015ean artatutako pertsonekin egindako **jarduketa-motak**, gehienak **gizarte-gaiekin lotuta egon dira (% 56)**, eta, jarraian, **laneko alderdiei buruzko informazioarekin (% 19)**.

Arreta mota	Arreta kopurua
Gizarte-arreta	4665
Lan-arreta	1549
Arreta juridikoa	1128
Laguntza ekonomikoaren	851
Harrera-zentroa	140

**Hemen** programa aipatu behar da, Bizkaiko Foru Aldundiaren zentroetatik irteten diren laguntzarik gabeko gazte atzerritarrei laguntza ematekoa. CEAR-Euskadik beste erakunde batzuekin partzuergoan gauzatzen du programa hori. 2007-2015etik, guztira 663 gazte artatu dira, eta, 2015ean, **187 gazte artatu dira; horietatik 52 berriak izan dira.**

**Vitoria-Gasteizen**, Eusko Jaurlaritzak finantzaturako zerbitzu juridikoa dago; bertan, 711 pertsona artatu dira (**429 gizon eta 282 emakume**), **53 nazionalitatekoak, eta 965 arreta juridiko eta** hainbat eremutako profesionalen **7 kontsulta egin dira**. Arreten edukitik, nabarmendu behar da horiek atzerritartasunaren eskubidean jasotzen diren ia gai guztiak hartzen dituztela. Era berean, CEAR-Euskadiren zerbitzu juridikoak diskriminazioaren biktima diren pertsona atzerritarrei ematen die aholku.

Esku hartzeko taldeak ere **atzerritarren lan-diskriminazioaren aurka lan egiten du**, Lan Merkatuaren Hileko Behatokitik.

### [ Intzidentziaren ildoak eta herritar kritikoak ]


#### Intzidentzia

Intzidentzia ulertzen dugu pertsona errefuxiatuek eskubideak erabat lortzea oztopatzen duten araudi-, erakunde-, politika- eta gizarte-egituren eraldaketan eragiten duten ekintza eta prozesuen zabalkunde gisa. Ikuspegi horretatik, migrazioen eremuan asilo-eskubidearen eta giza eskubideen defentsan lan egiten dugu eta, horretarako, herritar unibertsalak sustatzen ditugu, pertsona guztiek beren eskubideak baliatu ahal izateko eta eraginkortasunez gauzatu ahal izateko. Aldi berean, helburua da herritarren nahitaezko lekualdatzeak eragiten dituzten kausak desagerraraztea.

2015ean egin ditugun ekintza nagusiak honako hauek izan dira:

- **“Beldurrik gabe bizi”** jardunaldiak. Asiloaren babes- sa, genero-jazarpena dagoenean.
- **“Women’s Link WorldWide” erakundearen aholkularitza eta prestakuntza**, eragin politikoa duen plan bat egiteko, sexu-esplotaziorako tratua biktima diren emakumeek asilo-prozedurarako sarbide izan dezaten sustatzeko.
- 2015ean, Gernika Gogoratzekin batera, “Memoria partekatuak” ekimena egin genuen, EAEko giza eskubideen eragileak asilo-eskubideen inguruan sentsibilizatze-ko eta, horretarako, analogiak identifikatu genituen gerra zibilean eta frankismoan egon zen euskal erbestea- rekin, eta nabarmendu egin genituen emakumeen ekarpen bereziak.

Ekimen honen esparruan, Javier de Isusi- ren “Asylum” komikia argitaratu dugu.



- **Plataforma Tiranteren “Tras la Frontera” antzezlanaren estreinaldia.** Gure iragan beldurgarritik eginiko bidaia da, gaurkotasun lotsagarritik igaro dena, bizi izandako mina gogoratu gabe. Bidaia hori asmatutako etorkizunean amaitzen da, eta, bertan, muga bat igarotzea reality show bilakatzen da, injustiarekin eta miseriarekin ikuskizuna egiten duena, zer bihurtu gaitzkeen erakusteko.

- 2015ean, **giza eskubideak defendatzen dituzten 3 pertsona** giza eskubideen defendatzaileentzako aldi baterako babesaren euskal programaren esparruan artatu ziren.

### Gizarte-partaidetza

CEAR-Euskadiren gizarte-partaidetzako lan-prozesuaren helburua da herritar kritikoak eta parte-hartzaileak sustatzea, Euskadin etorkinen eta errefuxiatuen gizarte-eraldaketarekin eta integrazioarekin konprometituta daudenak. Horretarako, boluntarioek, praktiketako pertsonak, erabiltzaileek eta ordainpekoek osatutako talde batek gizarte-partaidetza sustatzeko jarduerak gauzatu zituen.

### [ Kulturen arteko bizikidetza ]

Kulturen arteko bizikidetza sustatzeko, CEAR-Euskadik honako ekintza hauek egin ditu:

- **Euskadiko Zurrumurruen Aurkako Sarea.** Zurrumurruen aurkako estrategietan lan egiten duten erakunde, elkarte, unibertsitate eta administrazio publikoak (udalak, Eusko Jaurlaritza...) batzen dituen sarea.



- **Era Berean. Eusko Jaurlaritzaren Tratu eta Diskriminaziorik Ezaren Sarea.** CEAR-Euskadi Gasteizen atzeritarren diskriminazioaren inguruan lan egiten duten erakundearen sareko kide da. Laguntza juridikoa eta laguntza pertsonala ematen die eremu pribatuan antzematen diren kasuei.

- **CEAR-Euskadi “Gora Gasteiz”-eko parte.** Gasteizko herritarren ekimena da, 2015eko azaroan sortu zena, Javier Maroto alkatearen diskurtso arrazista eta xenofoboei aurka egiteko eta herri anitza, tolerantzia eta solidarioa aldarrikatzeko.



- **“Bizilagunak: La familia de al lado” ekimena:** ekimen honen bidez, 2015eko azaroaren 22an 21 nazionalitateko 216 pertsona batu ziren; jardunaldian, berrogeita hamar familia inguruk beren etxeetako ateak ireki zituzten, beste kultura-jatorri bateko familia batzuk solasean jardutera eta jatera gonbidatzeko.

- **Zurumurruen aurkako kanpaina.** Europako Batzordearen esparruan, CEAR-Euskadik Bilboko Deustu auzoan zurumurruen aurkako eragile bilakatu ziren pertsonen talde bat hautatu eta prestatu zuen, eta zeregin hori gauzatzen lagundu zien. Gainera, kaleko ekintzak ere antolatu genituen, estrategia aurkezteko eta Deustuko auzokideak sentsibilizatzeko. Horrez gain, Aniztasunean Elkarrekin Bizitzeko Auzoko IV. Topaketan jardunaldia egin genuen.

- **“No Te dejes Enredar”.** Estatu osoan esanguratsua den kazetari talde bat protagonista duen zurumurruen aurkako kanpaina; kazetari horiek bat egin dute homofobiaren aurkako kazetariekin.

### [ Ekitaldi batzuk ]

#### 2015eko ekaina

400 pertsona baino gehiagok **‘En Construcción’** antzezlanaz ondo pasatu zuten eta ihes egiten duten pertsonen eta beren burua beren herrialdeak uztera eta egunero bizirik irauteko borrokatzera behartuta ikusten duten pertsonen laguntzeko interesa erakutsi zuten. ‘En Construcción’ Tristán Ulloak zuzendu du eta

Carolina Románek eta Nelson Dantek idatzi eta interpretatzen dute.



#### Abenduaren 21a

San Tomas egunean, BBK Fundazioak esker ona adierazi zion CEAR-Euskadiri, giza eskubideak defendatzeko eta gizarte-bazterkerian egoteko arriskuan dauden pertsona errefuxiatu, herrigabe eta migratzaileei laguntzeko egiten duen lanagatik. BBKko langileak, borondatez, txosna batean izan ziren, erakundeari laguntzeko funtsak batzeko.



Egunean bertan, BBK aretoan “Elegy” antzezlanaz ere ikusi genuen. Kontakizun hunkigarria, errefuxiatuei buruzkoa, Andrés Requejoren interpretazio bikainarekin.



# Aintzatespenak eta aliantzak

Aipatutakoez gain, 2015ean, CEAR-Euskadik honako esker on hauek jaso ditu:

- **Gizarte-intereseko adierazpena.**
- **Onura publikoko adierazpena.**

Bestalde, gizarte-erronka berriei erantzuteko, balioetan sakontzeko eta gizarte-erlidaketa lortzeko, taldeek aktiboki parte hartzen jarraitu dute hainbat saretan, plataformatan, partzuergotan eta beste lan-espazio batzuetan.

ERAGILE ALIATUAK	HARREMAN MOTA	JARDUERA
Euskadiko Etorकिन Laguntzarako GKE-en Koordinakundea (Harresiak Apurtuz)	Erakunde kidea	Erakundeen Koordinakundea - Biltzarra. Egoitza Bazterkeriaren Batzordea Gizarte eta Osasun Batzordea
Plataforma -BESTEBI	Erakunde kidea	Sareko lana, egoitza-inklusioren eta etxerik gabeko pertsonen alde
EAPN – Euskadi	Erakunde kidea	Pobreziaren aurka borrokatzeko Europako Sarea Euskadin Partaidetza Batzordea. Biltzarra. Osasun Mahaia
EKAIN SAREA	Erakunde kidea (Harresiak Apurtuz eta EAPN-ren bidez)	Partaidetza lantaldeetan
GIZARDATZ	Erakunde kidea	Gizarte esku-hartzeko sektoreko patronala. Biltzarrak
HEMEN	Partzuergoa	Laguntza gazte atzerriarrentzat. Partzuergoko burua, kudeaketa ekonomikoaren arduraduna
Kolektiba Colombia (Paz con Dignidad, Mugarik Gabe, Solidaridad Internacional, Posada de los Abrazos eta CEAR-Euskadi)	Partzuergoa	Giza eskubideen eta elkartasunaren erakundeen aliantza, agerian uzteko eta salatzeke Giza eskubideen urraketak Kolonbian
MATIKO komunitatea	Lankidetzeta-hitzarmena	"Zabalbide" gazte-ostatua
URETAMENDI komunitatea	Ahozko hitzarmena	"Ureta" gazte-ostatua
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA. GUFÉ	Lankidetzeta-hitzarmena	Lokalaren lagapena
Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza	Hitzarmena	Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa
Kolonbiako Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko plataforma	Erakunde kidea	Giza eskubideen defentsarako Kolonbiako estatuko sarea
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Kidea kontseiluan	Eusko Jaurlaritzaren organoa; lankidetzaren arloko eragileek ordezkariak dituzte bertan. Kontseiluak proposamenak aurkezteko, irizpenak emateko eta garapenerako euskal lankidetzeta publikoaren jarraipena egiteko gaitasuna dauka
Boluntariotzaren Euskal Kontseilua	Kidea kontseiluan	Eusko Jaurlaritzaren organoa, boluntariotzarekin loturiko gaietarako buruzko topaketarako, aholkularitzarako eta kontsultarako.
Boluntariotza Foroa	Erakunde kidea	Boluntariotzari buruz hausnartzeko eta figura hori sustatzeko gunea, Bizkaian.
Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez berriz kokatzeko plataforma globala (Europako Batzordea)	Erakunde kidea	Arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi batez berriz kokatzeko lanean diharduten nazio mailako, eskualde mailako eta nazioarteko erakundeak koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko europar plataforma

ERAGILE ALIATUAK	HARREMAN MOTA	JARDUERA
EUSKO JAURLARITZA Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	Lagapen-hitzarmena	Etxebizitzan lagapena
DONOSTIAko Udala.Gazteria, Lankidetzaz eta Giza Eskubideen Zuzendaritza	Lankidetzaz-protokoloa	Gomendioak egitea eta zinemaren eta giza eskubideen inguruko topaketetan parte hartzea
Deustuko Unibertsitatea	Hitzarmena	Filosofia eta Hezkuntza Zientziak Fakultateko praktiketako ikasleak.Psikologia Fakultatea.Soziozia Fakultatea.Gizarte Lana.Gizarte Hezkuntza.Zuzenbide Fakultatea.Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. NOHA Masterra
Euskal Herriko Unibertsitatea	Praktiketako ikasleak	Asilo-eskubideari buruzko prestakuntza hemen:Zuzenbide Fakultatea. Gizarte Laneko Fakultatea Hegoa Masterra Migrazioen Masterra
Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua	Hitzarmena	Praktiketako ikasleak. Asilo-eskubideari buruzko prestakuntza. Jarduera publikoaren antolaketa
ATEGORRI-TARTANGAGLHBI hezkuntza-zentroa	Hitzarmena	Praktiketako ikasleak
Bilboko Udala.Gizarte Ekintza Arloa	Lankidetzaz-hitzarmena	Erroldatzea etxerik gabeko pertsonentzat
Botika Zaharra GLHBI	Lankidetzaz-hitzarmena	Praktiketako ikasleak
EDE FUNDAZIOA EDE Fundazioaren hezkuntza-zentroa Garapenerako GKEa	Lankidetzaz-hitzarmena	MENASekin esku-hartzeko prestakuntza Praktiketako ikasleak
Bizkaiko Emakumeak Ahduntzeko Eskolak	Lankidetzaz-hitzarmena	Asiloaren, generoagatiko jazarpenaren eta asilo-eskubidearen inguruko sentsibilizazioa
NAHIA	Lankidetzaz-hitzarmena	Genero-ikuspegiari eta sexu-aniztasunari buruzko lan-sarea
Gernika Gogoratuz	Elkarlana eta lankidetzaz	Ekimena: "Memoria partekatutako: asilo-eskubidea, frankismoaren garaiko erbesteratze-esperientzien begietatik"
ZAS zurrumurruen aurkako euskal sarea (2015ean formalizatua baina 2015ean sortua)	ZAS zurrumurruen aurkako euskal sarea (2015ean formalizatua baina 2015ean sortua)	EAEn zurrumurruen aurkako estrategia koordinatzea
ERABEREAN tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako sarea	ERABEREAN sarearen Arabako antena-erakundea	Eusko Jaurlaritzak sustatutako sarea, arraza, etnia edota nazio jatorriak, zein sexu-orientazioa eta -identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egiteko.
Gora Gasteiz	Talde Motorreko eta Komunikazio Batzordeko kide den elkarte	Gasteiz plurala eta askotarikoa eraso xenofoboetatik babesteko eta kulturari dagokionez heterogeneoa den bertako biztanleriaren giza eskubideak defendatzeko sortutako gizarte-mobilizaziorako herri-ekimena
Gasteiz Irekia	Talde Motorreko eta Komunikazio Batzordeko kide den elkarte	Vitoria-Gasteizek aterpe-hiri gisa dituen aldarrikapenak biltzeko sorturiko herri-plataforma
Isiltasun-zirkuluak Vitoria-Gasteizen	Erakunde kidea, bigarren mailako rola	Tokiko politiketan eragiteko xedea duen herritar taldea. "Zure isiltasuna da zure garrasirik indartsuena" lelopean biltzen dira hileko lehen ostegunean, gizartetik at gelditzeko arriskuan dauden pertsonentzako baliabideen kudeaketa defizitariora salatzeko

# Iraunkortasun ekonomikoa

Urtero bezala, CEAR-Euskadik, borondatez, bere kontabilitatearen kontu-ikuskaritza egin du; **PKF ATTEST Servicios Empresariales SL** enpresak egin du, eta aldekoa izan da. Jarraian aurkeztutako kontuek (2015eko abenduaren 31koak) leialki islatzen dute CEAR-Euskadiren ondarea eta finantza-egoera, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitzak ere.

## CEAR-EUSKADI ELKARTEA (ERREFUXIATUEN LAGUNTZARAKO BATZORDEA EUSKADIN) BALANTZE LABURTUAK 2015EKO ETA 2014KO ABENDUAREN 31N (Euroak)

AKTIBOIA	2015	2014	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2015	2014
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA:</b>			<b>ONDARE GARBIA:</b>		
Ibilgetu materiala (Nota 5)	3.915	1.872	Funts propioak (13. oharra)		
Finantza-inbertsioak epe luzera (7. eta 8. oharrak)	1.129	1.680	Gizarte-funtsak	213.418	213.418
<b>Aktibo ez-arrunta, guztira</b>	<b>5.044</b>	<b>3.552</b>	Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	(80.199)	(81.399)
			Ekitaldiaren soberakina	51.154	1.200
			<b>Ondare garbia, guztira</b>	<b>184.373</b>	<b>133.219</b>
<b>AKTIBO ARRUNTA:</b>			<b>PASIBO EZ ARRUNTA:</b>		
Izakinak	4.880	3.171	Zorrak epe luzera (17. oharra)		
Berezko jardueraren erabiltzaileak eta beste zordun batzuk (7. eta 9. oharrak)	20.800	21.000	Beste epe luzerako zorra (14. eta 17. oharrak)	111.684	76.963
Berezko jardueraren erabiltzaileak eta beste zordun batzuk (7. eta 9. oharrak)			<b>Guztira Pasibo</b>	<b>111.684</b>	<b>76.963</b>
Beste zordun	506.068	401.069	<b>PASIBO ARRUNTA:</b>		
Inbertsioak taldeko erakundeetan eta epe laburrera elkartuetan (7. oharra)	1.797	625	Zorrak epe laburrera (14. eta 17. oharrak)		
Finantza-inbertsioak epe laburrera (7. eta 8. oharra)	551	2.375	Beste zor batzuk epe laburrera (17. oharra)	354.712	288.665
Esku-dirua eta aktibo likido baliokideak (11. oharra)	207.033	144.997	<b>Pasibo arrunta, guztira</b>	<b>354.712</b>	<b>288.665</b>
<b>Aktibo arrunta, guztira</b>	<b>741.129</b>	<b>573.237</b>	Merkataritza-hartzekodunak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk		
<b>AKTIBOIA, GUZTIRA</b>	<b>746.173</b>	<b>576.789</b>	Beste hartzekodun batzuk (14. oharra)	95.404	77.942
			<b>Pasibo arrunta, guztira</b>	<b>450.116</b>	<b>366.607</b>
			<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>746.173</b>	<b>576.789</b>


- Erantsitako memorian jasotako 1etik 23ra bitarteko oharrak 2015eko abenduaren 31ko balantzearen zati dira.

**CEAR-EUSKADI ELKARTEAREN (EUSKADIKO ERREFUXIATUEN LAGUNTZARAKOBATZORDEA)  
2015EKO ETA 2014KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO  
URTEKOEKITALDIEI DAGOZKIEN EMAITZEN KONTU LABURTUAK (euroak)**

<b>EKITALDIKO SOBERAKINA:</b>	<b>2015</b>	<b>2014</b>
Berezko jardueraren diru-sarrerak (18.oharra)		
Elkartuen eta afiliatuen kuotak	13.632	11.530
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta ondareak (18. oharra)	885.222	877.273
	<b>898.854</b>	<b>888.803</b>
Merkataritza-jarduedaren salmentak eta beste diru-sarrera batzuk (18. eta 21. oharrak)	27.572	28.428
Laguntza eta beste batzuen gastuak		
Diru-laguntzak	(90.450)	(97.260)
Amaitutako eta fabrikatzen ari diren produktuen izakinen aldakuntza	1.709	(1.046)
Hornidurak	(2.557)	-
Jardueraren beste diru-sarrera batzuk (21. oharra)	11.018	2.644
Langile-gastuak (18. oharra)	(563.008)	(521.267)
Jardueraren beste gastu batzuk	(236.984)	(291.892)
Ibilgetuaren amortizazioa (5. oharra)	(1.240)	(1.002)
Beste emaitza batzuk	6.239	(6.208)
	<b>51.153</b>	<b>1.200</b>
<b>JARDUERAREN SOBERAKINA</b>	<b>51.153</b>	<b>1.200</b>
<b>SOBERAKINA ZERGEN AURRETIK</b>	<b>51.153</b>	<b>1.200</b>
Onuren gaineko zergak (16. oharra)	-	-
Ekitaldiko soberakinean aitortutako garbiaren aldakuntza	51.153	1.200
	<b>51.153</b>	<b>1.200</b>
<b>EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA EKITALDIAN</b>	<b>51.153</b>	<b>1.200</b>

## URTEKO KONTUAK - 2015: DIRU-SARRERAK


[ DIRU-SARRERAREN JATORRIA ]



**CEA(R)** EUSKADI  
Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea

## URTEKO KONTUAK - 2015: GASTUAK

[ GASTUEN BANAKETA ]




# Gure babesleak



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia



Arabako Foru  
Aldundia



gipuzkoa  
BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES



UDALA  
AYUNTAMIENTO



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA



kutxabank **bbk** obra social 



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala



FUNDACIÓN  
VÍCTOR TAPIA - DOLORES SAINZ



fundación  
carmen gandarias



ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS  
DEL SEÑORIO DE BIZKAIA  
BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN  
BAZKUN OHORETSUA

**ANDAMIOS  
INOX**



scribas



**KULTURBASQUE**  
UPV/EHU

HOTEL\*\*  
Bilbao Jardines



Ursula  
hogar y decoración

[ Eskaneatu kodea mugikorrarekin eta egin CEAR-Euskadiko bazkide ]



**Lagundu pertsona errefuxiatuen  
eskubideak defendatzen**

[www.pear-euskadi.org](http://www.pear-euskadi.org)

Jarrai gaitzazu sare sozialetan



[ **CEAR Euskadi** ]

**Bilbo**

Kristo kalea 9 B, 5. solairua. 48007 Bilbo (Bizkaia).  
tel.: 94 424 88 44

**Vitoria-Gasteiz**

Aldabe kalea 7. 01012 Vitoria - Gasteiz.  
tel.: 945 266 805

**Donostia**

Zarategi pasealekua 100, Txara I eraikina.  
20015 Donostia

**CEA(R)** EUSKADI

**Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea**